


ERROREAK HELDUEN  
EUSKALDUNTZEAREN AZKEN  
URRATSETAN

Euskararen zenbait fonemaren ahoskerari  
buruz

Hizkuntzaren izariak: tankera,  
pragmatika eta esanahia

Bizkaiko euskaldungo heldua  
alfabetatzeko egitasmoaren lehen  
urratsak



VI URTEA  
17. zenb.  
1988 MAIATZA-ABUZTUA  
700 pzt.



euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria

**ZUTABE**

**Zuzendaritza:** Iñaki ARANBERRI  
Pello ESNAL  
Imanol IRIZAR  
Gurutz LARRAÑAGA  
Boni URKIZU


**Koordinatzailea:** Joanba BERGARA

**Idazkaritza-Harpidetzak:** HABE  
ZUTABE aldizkaria  
Reina Regente, 2-1-a  
20003 DONOSTIA-Tel.: (943) 29 18 11

**1988rako prezioak:** Ale bakoitza: 700 pzta.  
Harpidetza: 1.500 pzta.

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra, HABE

**ZUTABE**



*Uneta*

## AURKIBIDEA

### GAI MONOGRAFIKOA

- Erroreak helduen euskalduntzearen azken urratsetan (Pello Esnal)..... 9

### EUSKARA AZTERGAI

- Eskolaren harian (Rufino Iraola) ..... 69
- Idazlanak eta eskutitzak (Dionisio Amundarain) ..... 73
- Euskararen zenbait fonemaren ahoskerari buruz (Pello Salaberri)..... 75

### IRUDIBIDEZ

- Aldrebeskeriak (Joanba Bergara) ..... 80

### ITZULPENAK ETA LANKIDETZAK

- Hizkuntzaren izariak: tankera, pragmatika eta esanahia (D. Larsen-Freeman) ..... 85
- Ikaslearen aukera hizkuntz ikaskuntzan (A. Littlejohn)..... 90
- Maizpide euskaltegi-barnetegi berria Lazkaon (Zutabe) ..... 100
- Bizkaiko euskaldungo heldua alfabetatzeko egitasmoaren lehen urratsak (Labayru: I. Basterretxea, S. Urrutia, M. Alberdi, I. Etxebarria) ..... 119
- II. Euskal Mundu Biltzarra. Hizkuntz ikaskuntzaren eremuko hitzaldiak (J.I. Hualde) ..... 136

### ELKARRIZKETA

- Jean van Yzendoorn ..... 143

### GURE MUNDUTXOA

- Expolingua 88 (Zutabe)..... 157
- Euskara-irakasle eta irakaslegaientzat ikastaroa Zornotzan (Pello Esnal) ... 157
- Aurten Bai 88: «Gu bagoaz aurrera» (Zutabe)..... 158
- Neurolinguistika eta ikaslearen autonomia (Jürgen Wolff)..... 161

## SARRERA

*Denbora joan denbora etorri, berriro ere eman diogu hasiera kurtso berri bati. Ahalik eta oparoen gerta dakizuela.*

*«Erroreak helduen euskalduntzearen azken urratsetan: ondorengo ikerketa baten oinarriak» Pello Esnalek 1986an Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztutako tesina dugu. Lan trinko honetan egileak ondorengo ikerketen oinarriak jarri nahi izan ditu. Monografia bi ardatz nagusiren inguruan dago txutua. Lehenengoak «Erroreak bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan» du izenburu eta gaia bere osoan hartu eta miatzen du. Bigarrenak, berriz, «Ikasleen erroreak euskalduntzearen azken urratsetan» izenekoak, gaiari zehazkiago heltzen dio eta hurbilagotik ekiten ondorengo ikerlanen oinarriak jartzeari.*

*Lehendik ere hartu izan du euskara aztergai Zutabek. Hala izan behar! Hori bait da gure eguneko egitekoa eta kezka. Oraingoan, eta hala nahi genuke hemendik aurrera ere, sail berri bat eskaini diegu Rufino Iraola, Dionisio Amundarain eta Patxi Salaberrik buruturiko lanei. Sail honek euskararen beraren hainbat eta hainbat alderdi eta arazo ikutu nahi lituzke eta, zer esanik ez, geure euskara aberastu eta herritartzeko proposamen eta baliabideen berri eman. Guztiontzat lagungarri gertatuko ahal da.*

*«Irudibidez», aurrekoa bezala, sail berria dugu. Bertan, irudiaren indarra eta hitzezko azalpena uztartuz, euskararen irakaskuntz alorreko kontzeptuak azaldu ezezik zenbait eritzi ere eman nahi genituzke beste era batera. Lehenengo honetan irakaskuntzak ikaslearengan ardaztu behar duela gogorarazten zaigu.*

*Bost artikuluk osatzen dute «Itzulpenak eta lankidetzak» saila. Larsen-Freeman-ek hizkuntzaren oinarritzko hiru izari aintzakotzat hartzeko premia azaltzen digu. Littlejohn-ek, bere aldetik, ikaslearengan ardazturiko zenbait planteamendu aztertzeraz garamatza. Hizkuntz programak metodoa eta ikasgaien edukia aukeratzeko egokiera eman beharko liokeela ikasleari, argudiatzen du Littlejohn-ek. Hirugarren artikulua Lazkaoko Maizpide euskaltegi-barnetegiaren berri dakarkigu. Hurrengoak Labayru Ikastegiak buruturiko azterketa baten emaitzak eskaintzen dizkigu. Azken urteotan euskaldun alfabetatu eta tituludunen kopurua goraka joan arren, euskara gutxiago eta po-*

*breago erabiltzen dela ikusita, Labayrukoek arazo honi buelta emateko beharra ikuserazten digute. Azkenik, Hualdek Euskal Mundu-Biltzarrean hizkuntz ikaskuntzaren eremuan aurkeztu ziren txostenak laburtu eta komentatzen ditu bere artikuluan.*

*Oraingo honetan Jean van Yzendoorn hizkuntza erromanikoen irakasle «euskaldun finlandiarra» elkarrizketatu dugu. Besteak beste, suomieraren gorabeheraz hitz egingo digu. Jakingarriak dira oso irakasle honek esandakoak.*

*«Gure mundutxoa» sailak ixten du alea. Besterik ez. Kurtso ona izan.*